

# ASTIGARRAGAKO ESKOLA AGENDA 2030

## 2023/2024 IKASTURTEA

2023ko ekainaren 13ko udal foroan ikasleek Udalari herri mailako proposamenak aurkeztu zizkioten. 2024ko martxoaren 6ko udal foroan Udalak proposamen hauei emandako erantzunak aurkeztu ditu:

### ENERGIA AURREZTEKO ETA ERAGINKORTASUNA HANDITZEKO NEURRIAK:


#### PROPOSAMENAK

- Faroletako argiak ordezkatzeko orduan LED zuriak izatea eta orokorrean herriko kanpoko argiteriaren mantenu egokirako neurriak martxan jartzea.
- Goiko aldea estalita ez duten farolei argiak zerura ihes ez egiteko irtenbidea jartzea.
- Argi gehiegi dagoen eremuetan/tokietan argiaren intentsitatea jaistea edo jaitziaztea.
- Jende gutxi igarotzen den toki ilunetan presentzia detektagailuak jartzea.

#### ERANTZUNAK

- Faroletako argiak LED sistemara aldatzea:
  - Murgia parkean 16 farola aldatu dira.
  - Arrobitxulon 90 farola.
  - Herrian zehar beste 84 farola.

Oro har, herriko farola guztien % 70a LED sistemako farolak dira (1.850 faroletatik 1.295). Herriguneko farolen aldaketak amaitu dira eta orain industria poligonoetako eremuan kokatuta daudenak falta dira.



## HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA:

### PROPOSAMENAK

- Herriko sektore ezberdinei begirako prestakuntza eskaintzea energiaren gaian eragile ezberdinen ezagutza handitzeko (familiak, dendariak, enpresa txiki eta ertainak, etab.).

### ERANTZUNAK

- Goienerrek gasaren eta argindarraren fakturaren inguruan hitzaldia eman zuen, udalak antolatuta.

## ENERGIA BERRIZTAGARRIAK BULTZATZEA:

### PROPOSAMENAK

- Etxebizitzetan eta saltoki txikietan energia berriztagarriak ezartzeko dirulaguntzen berri ematea eta Udalak berak energiaren aurrezpenera eta energia berriztagarriak ezartzera zuzendutako dirulaguntzaren bat ere izan dezakeen aztertzea.

### ERANTZUNAK

- Baserritarrei energia berriztagarriak ezartzeko laguntzak ematea eta eguzki plaken bi instalazio ezartzea.
- Udal mailan eguzki plakak ezartzea kiroldegian eta Erribera kultur gunean. Horiei esker argindarra sortzen da eta argindar hori udal eraikin ezberdinetan erabiliko da.

## ENERGIA ETA MUGIKORTASUNA:

### PROPOSAMENAK

- Autobusaren zerbitzuen ordutegien berri toki ezberdinetan ematea.
- Bizikletaren erabilerarekin zerikusia duten azpiegiturak hobetzea.

### ERANTZUNAK

- Panel digitaletan eta geltokietako bertako karteletan autobus zerbitzuaren ordutegiak jartzea.
- Bizikleta aparkaleku berriak, mantenu eta konpontzeko guneak eta garbitzeko bi eremu jartzea.
- Donostiarekin elkarlanean, Dbizi bizikletaren alokairu-sistema publikoa ezartzeko hitzarmena sinatzea.
- Eskolarako sarrera eta irteera orduetan autoei eskolarako bidea ixtea.

